

IKASKETAK UNIBERTSITATEAN

Unibertsitateko karrera aukeratzea

Unibertsitatera heldu baino lehen, ikasi nahi duzun karrera aukeratu behar duzu. Ez da lan erraza, aukeraketa horrek zure etorkizun profesionalean zuzenean eragingo baitu.

Gainera, gauza asko eta oso ezberdinak atsegin dituzu eta ez dakizu zein aukeratu, eta zure gurasoek beraiek nahi duten karrera egitera bultzatzen zaituzte. Zer egin?

Aukeraketa egin aurretik, egokiena, interesatzen zaizkizun ikasketen inguruan informatzea da. Joan zaitez fakultateetara, parte hartu orientazio-ikastaroetan, hitz egin arlo horretan lan egiten duten profesionalekin...

Ezagutzen dituzu plan berriak? nola sartu unibertsitatean? nolakoak dira sarrera probak? zeintzuk dira Euskadin eskaintzen diren ikasketak 2010-2011 ikasturtean?

2010eko urtarrilaren 23an eta 30ean eta otsailaren 6an unibertsitate orientazio jardunaldietara joateko aukera duzu. Eskaintza akademikoa, ikasketa planak, ikasleek eskura dituzten zerbitzuak eta unibertsitatean sartzeko bete beharreko izapideei buruzko informazio orokorra emango dizute Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Campusetan.

Euskal Herriko Unibertsitateak zure esku du Unibertsitate Orientaziorako Zerbitzua. Bertan, karreraren inguruko informazioa, horietara sartzeko behar den nota, euskaraz dauden karreraren eskaintza eta beste hainbat gairen inguruko informazioa eskaintzen da. Gainera, zerbitzu horrek urtean hainbat informazio hitzaldi eskaintzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko herrietan. Era berean, EHUK orientaziorako jardunaldiak antolatzen ditu bere hiru kanpusetan eta martxoko lehen astean ate irekiko jardunaldiak izaten dira Unibertsitatean. Horrela, nahi duen orok Unibertsitatea gertutik ezagutzeko aukera du.

Ikastetxeek ere erabakia behar bezala hartzen lagunduko dizute. Aholkuak eta informazioa emango dizute horren zaila den erabakia hartzen laguntzeko.

Erabakia hartu aurretik ongi pentsatu. Ondorengo gomendioak erabilgarriak izango dituzu:

- Utzi alde batera familiaren presioak.



- Erabaki garrantzitsua da, beraz, ongi pentsatu.
- Etorkizunean zure burua lanbide horretan ikusten duzun pentsa ezazu.
- Hitz egin sektoreko profesionalekin.
- Aztertu aukera guztiak.
- Ez ahaztu, asmatzen ez baduzu karreraz aldatzeko aukera duzula.

Euskal Herriko Unibertsitateak eta Urrutiko Hezkuntza

Unibertsitate-irakaskuntzari dagokionez, Euskadin lau unibertsitate daude, eta horien barruan 28 fakultate, 3 goi-mailako eskola tekniko, eta 11 unibertsitate-eskola. 4.000 irakaslek baino gehiagok ematen diete eskola 80.000 ikasleri baino gehiagori.

Gazteaukera.net-etik, orobat, loturak eskaintzen dizkizugu Euskadiko unibertsitate publiko zein pribatuekin.

- Euskal Herriko Unibertsitatea(EHU-UPV)
- Deustuko Unibertsitatea
- Nafarroako Unibertsitatea(Donostia)
- Mondragon Unibertsitatea

Gainera, beste unibertsitate batzuetara ere sar zaitezke.

Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak ikastetxe elkartuak ditu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan:

- Vitoria-Gasteiz Ikastetxe Elkartua
- Bizkaia Ikastetxe Elkartua
- Bergara Ikastetxe Elkartua

Garraio Zerbitzua eta ostatua

- **Garraio Zerbitzua**

UPV/EHUra egunero joateko **garraio publikoa** (autobusa edo trena) erabil

dezakezu **edo autoa partekatu.Hainbat herritatik joateko**, unibertsitateko ikasleek elkartek eratu dituzte. Elkarte hauek unibertsitateko ikasleek zuzendutakoak dira, eta ikasleek ordaintzeko moduko prezioak eskaintzen dituzte. Altube, Bidaitxungo, Bikain, Goto-pesa, La Unión eta Pipper dira elkartek.

UPV/EHUko Ostatu eta Garraio Zerbitzuan informazio gehiago eskuratuko duzu.

- **Ostatua:**
- Euskadin ostatu hartzeko hainbat aukera dituzu:
- gelak eta pisuak,
- Ikastetxe Nagusia eta UPV/EHUko egoitzak,
- Beste ikastetxe nagusiak eta egoitzak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan,
- 3. Adinekoekin Elkarbizitzeko programa Araban eta Gipuzkoan.

Euskaditik kanpora ikasteko asmoa baduzu, hainbat Ikastetxe Nagusi dituzu unibertsitatearen arabera.

Bekak, laguntzak eta sariak

- Gazte Informazio Bulego sareak bildutako beka deialdiak (formakuntzarako, ikerketarako, espezializatzeko, praktikak egiteko, unibertsitateko ikasketak edo unibertsitatekoak ez diren ikasketak egiteko, garraiorako, hizkuntzak ikasteko, eta abar.)
 - Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila (Unibertsitateko ikasleentzat, ikerketa eta graduatu-ondokoentzat)
 - Laguntzak eta bekak UPV/EHUko web orrialdean
 - Zientzia eta Teknologia Ministeritza
-

Unibertsitateko ikerketa

Aipatu beharrekoa da unibertsitateko ikerketa, garapenerako bultzagailu aparta baita.



Praktikak eta lana bilatzeko sistema

UPV/EHU-k praktikak kudeatzeko eta lana bilatzeko sistema

bat du Interneten. Horren bidez, ikasleek prestakuntza hobetu, eta lan-merkatuan sartzeko itxaropenak ugaltu dituzte. Enpresetan eta erakundeetan praktikak egiteko, klik egin: Praktiges; eta ikaslea edo lizentziatu berria bazara, eta lan-munduan sartu nahi baduzu: Lanbila.

Udako ikastaroak - 2009

Euskal Herriko unibertsitateek hainbat ikastaro antolatzen dituzte udako hilabeteetarako, nahi duenak ezagutza osagarria eskuratu dezan. Horrek, gainera, badu beste abantaila bat ere: ikastaro horiek egiteagatik aukera askeko hainbat kreditu eskuratu ditzakezu.

Zuzenbidea, informatika, ekonomia, kazetaritza, medikuntza, arkitektura, kimika, historia... Askok dira ikastaro eta mintegi horietan lantzen diren arloak. Udako egun beroetarako ikastaro arinak eta freskoak izan ohi dira, izen handiko profesional eta irakasleek ematen dituztenak.

Horrez gainera, giro aparta sortzen da ikastaro horietan parte hartzen duten lagunen artean, beraz, jende berria ezagutu eta lagunak egiteko aukera ona izan daiteke. Ikastaroak ez dira soilik unibertsitateko ikasleentzat, jende guztiarentzat daude zabalik.

- Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV-EHU) ekainaren 22tik irailaren 13ra bitartean burutuko ditu Donostiako Miramar jauregian XXVII. Udako Ikastaroak. 2009ko eskaintzak lau ardatz izango ditu: bizitzeko ikasten, elkarrekin bizitzeko ikasten, aurrera egiteko ikasten eta irakasteko ikasten. Kanpotik datozen ikasleentzako egoitza bat ere badu unibertsitate honek. Ikastaroak euskaraz, gazteleraz, frantsesez zein ingelesez eskaintzen dira.
- Udako Euskal Unibertsitateak (UEU), aldiz, Eibarren, Baionan eta Iruñean egingo ditu ikastaroak ekainaren 30etik uztailaren 25era bitartean. Euskara hutsezko ikastaroak izan ohi dira eta arlo ugari jorratzen dituzte. Besteak beste, informatika,



hizkuntzalaritza, energia berriztagarriak, ondarea... Parte hartzen duten pertsonak ostatua hartzeko aukera ere badute.

- Bergarako UNED zentroak ikastaroak eskintzen ditu ekainaren 16tik 26ra bitartean. Helburua hirukoitza da: lehenik, unibertsitateko ikasleei zuzendutako ikasketa eskaintza zabaltzea, gai eta ikuspuntu berriak eskainiz. Bigarrenik, gure inguruko profesionalei, beraien etengabeko prestakuntza garatzeko aukera ematea. Eta hirugarrenik, gizarte-zerbitzuek edo komunikabideek asetzen ez dituzten herritarren kezka edo jakin-nahi kulturei erantzutea.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoak(UPNA) ere hainbat ikastaro antolatzen ditu. Azkenik, kontuan izan ezazu Euskaditik kanpora ere asko izaten direla udako hilabeteetan lanean aritzen diren unibertsitate eta hezkuntza zentroak.



Atzerrian ikastea

Horrela nahi baduzu, unibertsitateko ikasketak atzerriko herrialde batean egin ditzakezu. Aukera horretan interesatuta baldin bazaude, Munduko Unibertsitate guztien direktoria biltzen duen ataria kontsultatu dezakezu. Horrez gainera, zure ikasketak egin ditzazkezun Europako hainbat herrialderen informazioa jaso dizugu hemen.

Alemania

Madrilgo Goethe Institutuko Truke Akademikorako Zerbitzuak (DAAD), Alemanian egin daitezkeen goi-mailako ikasketei buruzko informazioa ematen du. Hainbat arloren artean ondorengoak izango dituzu eskura: Alemaniako unibertsitateetan matrikulatzea, unibertsitateko ikasketak eta Alemaniako unibertsitateekin harremanetan jartzeko datuak, doktoregoak eta graduondokoak, unibertsitate-sistema, udako ikastaroak eta abar.

Informazio hori guztia DAADren atarian irakurri ahal duzu. Era berean, eskura duzu baita ere Goethe Institutuak eskaintzen dizkizun aukerak. Hala nola, hizkuntza-ikastaroak, azterketa ofizialak.... Azkenik, Alemaniako goi-eskoletan egin daitezkeen unibertsitate-titulu eta ikasketan gaineko informazioa Hochschulkompass erakundearen atarian aurkituko duzu.

Frantzia

Madriilen dagoen Institutu Frantsesaren Unibertsitate Informaziorako Zerbitzuak Frantzian egiten daitezkeen goi-mailako ikasketen inguruko hainbat informazio jartzen dizu eskura: unibertsitateko ikasketak, unibertsitateetarako aurreinskripzioak, tituluen onarpena Frantzian eta Espainian, Frantses-ikastaroak, ikasleei zuzendutako gidaliburu praktikoa.

Italia

Italian ikasi nahi baduzu, Madriilen dagoen Italiako Gobernuaren Kulturako Italiar Institutura jo dezakezu. Ondorengo gaien inguruko informazioa emango dizute: unibertsitateak, ikastetxe pribatu eta publikoak, arte eskolak, zine-eskolak, sukaldaritza eskolak, moda eta diseinu eskolak....

Suedia

Ikasketak egiteko Suedia aukeratu baduzu, herrialde horretako Goi-Mailako Agentzia